

I. Eranskina (Oñatiko Inauteriak)

*Idatzi honetan Euskal Herriko eta munduko inauterien informazio orokorra aurkituko duzue. Honez gain, Oñatiko Inauterietako deskribapen orokorra ere agertzen da. Gainera beste web-gune baten erreferentzia ere badago aztertzeko beste aukera bat izan dezazuen.

IÑAUTERIEN INFORMAZIO OROKORRA eta OÑATIKOEN OINARRIAK

GURE IÑAUTERIAREN OINARRIAK

Inauteria, kristau egutegian, garizumarekin lotuta dago, horren arabera izaten da inauteri garaia. Gainera, ilargiaren zikloarekin lotutako ospakizunak dira, ilargi-jaiak dira eta horregatik aldatzen da urtero haien data.

Europan jai egun horiek izendatzeko carnaval, carnavale eta antzeko hitzak erabiltzen dira askotan. Hitz horien esanahiaren inguruan, zenbait hipotesi egon izan da, eta hipotesi horietako batzuk haragiarekin lotzen dute, haragi-uztearekin hain zuzen ere, eta azken batean garizumarekin. Beraz kristautasunarekin lotutako esanahia izan da iñauteriari eman zaizkionetako bat.

Hala ere, Oñatiko iñauteriaren zentzua, modu zabalagoan ulertzen da, erritu hauek aintzinakoagoak direla uste delako.

Oñatiko kasuan inauteri hitza erabiltzea erabaki zen, hitzak berak duen esanahiagatik. Inausteak zuhaitzaren inaustearekin eta kimatzearekin dute lotura. Garbitzeko modu bat ere bada; izurria ekiditeko erritu bat. Era berean, negua amaitu eta udaberria jasoko dugun uzta ona irudikatzen duen erritua ere bada.

Oñatiko inauterian, izurria konde eta kondesa izango lirateke eta festak dirauen bitarte horretan egiten den konjurazioaren bidez, txarra den hori ekidin eta gure artean izurria irudikatzen duten konde eta kondesa herritik kanporatzen amaituko genuke. Modu horretan, hasiera batean eraso dena, garaipen bilakatuz.

Bestetik, inauteria beti izan da festa garaia. Satira, zirikatze eta kritika garaia. Dualitatea eskaintzen duen festa da; ni eta bestea. Mozorroa azpian, norbere identitatea beste bat bilakatzen da eta, eguneroko mundu zibilizatutik aldendu eta legerik gabeko atmosfera batean murgiltzen da.

Hortaz gain, Oñatiko Iñauterian, pertsonaiei dagokionean Oñatirekin zerikusi zuzena duten Konde eta Kondesaz gain, herriko lanbide zaharrak bistaratzeko apostua ere egin zen 2016.



urtean. Modu honetan, iñauteriak berak herri nortasunaren adierazle ere izateko ahalegina egin nahi izan zen eta horretarako ofizioak ezagutu eta landu ondoren, hainbat ofizio irudikatuz, ofizio ezberdinekin harremana duten mozorro edo pertsonaiak Iñauterira ekartzeko hautua egin zen.

*Informazio gehigarria:

<https://www.amaroa.com/inauteriak>

DESKRIBAPEN OROKORRA

Oñati Gipuzkoako hego-mendebaldeko udalerrri bat da, Debagoiena eskualdekoa. Gipuzkoa osoko handiena da, hedaduraren aldetik.

Oñatiko jai nagusiak “corpus christi festak” eta Irailean San Migel errosario jaiak izaten dira. Hori gutxi balitz Oñatin auzo ezberdinetako festak oso bizirik daude eta Maiatzean hasi eta Irailera bitartean ez da festa egiteko aukerarik falta.

Herri bizia da Oñati, jai nagusi eta auzo jaiez gain, badira beste hainbat ospakizun urteroko agendetan lekua izaten dutenak. Hala nola ; iñauteriak, Haurren eguna...

Iñauteri festari dagokionez, Oñatik ez du jaso herrian iñauteri giroko tradizio baina hastanpenetara jotzen badugu, Oñatz dantza taldeak 80.hamarkadan ekin zion herrian Iñauteriak ospatzeari. Hain zuzen ere, 1986. urtean plazaratu zituen “Luzaideko bolantak” lehen aldiz eta ordutik, urteroko errealitate bat dugu Iñauteri igande arratsaldean.

Urte batzuk geroago, iñauteri asteburuari indar pixka bat emateko asmoz, 90.hamarkadan, Iñauterietako larunbatez, herritarrekin batera toki ezberdinetako iñauteri lekutu eta gorpuztu izan zituen. Hala nola, “Lantzeko Iñauteria”, Kaldereroen konpartsa”, “Lapurdiko jauziak”...

Urte batzuetako etena izan zuen arren, jendearen ilusio eta dantzarako gogoak eraginda berriro ekin zitzaion formatu berean Iñauterietako larunbatez herritarrekin batera iñauteri ezberdinak kaleratzeari.

Halere, urteak aurrera, urtero iñauteri ezberdin bat landu eta jatorrizko tokian kaleratzen den modu berean egiteak dituen zailtasunak tarteko, Oñatiko iñauteri propioa sortzearen aldeko apostua egin zen.

Gauzak horrela, 2012.urtean ideia landu eta 2013.urtean jai ziren “Oñatiko Iñauteriak”.

